

# Goibek kale

Elgetako aldizkaria 34.zk.

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1ª EZK.



Santiago eta San  
Andresen erretaula  
zaharberrituta

*Maderas Gallastegi, s. a.*

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

## Asentzioko auzo batzordearen oharra

Goibekokale hilabetekari honen aurreko alean argitara eman zen, auzokide baten iloba omen den batek izenpetua, batzorde honetako kide baten kontrako salaketa, honek egin bide duen maiordomtzaren administrazio-era zalan-tzan jarritz.

Ohar honen bitartez aurre egin nahi diegu idazki hartan isurtzen ziren susmo txarrei eta orduan esandakoak gezurtatu, Asentzioko administrazioaren kontuen berri beren garai eta lekuan argituak gelditu direla aldarrikatuz.

1998ko apirilak 7  
Asentzioko Auzo Batzordea

## **Oraingoan ez da erraza izan!!!!!!**

Gaueko ordu txikietan lan egitea beharrezkoa izan da Goibekokalek argia ikusteko. Dirudienez prentsan lanean aritzeak azkenengo egunean lanak amaitu ezinean ibiltzea dakar. Gu ez gara bada prentsa lan horietatik libratzen. Hilerokoez libratu ez eta orrialde honetarako heldu behar ziren kartak ez direla heldu jakin dugu.

Egia esan, ez genuen idazten ari garen testu hau idazteko asmorik. Orri hau propio dago gordeta herritarrok idazteko. Seguru idazteko gogoia duzuela zuetako askok. Boligrafoa har-

tzeko "nagitasun" hori gainditzea bakarrik geratzen da egiteko. Ez da hain zaila. Alderantziz, ez dago papela hartu eta aulki baten jartzea besterik. Barruak husteko ere balio duen ariketatxoa da. Ikusten duzun moduan idazteko esaten ere egin daiteke testua. Ni orain horixe bera egiten ari naiz eta bost minutu behar dira, besterik ez.

Angiozarrera ehunetik gora, herritik kanpora ere ia berrehun ale, Euskal Herri osora, Espainiara eta baita Estatutik kanpora ere bidaltzen dugu Goibekokale. Elgetatik kanpora zaude tenok ere zer kontatua izango duzue ba...

Oraingoan ez da erraza izan!  
Baina hurrengoan behintzat seguru orri

honetan karta bat baino gehiago dagoela. Ezetz?

Askok bere izena gordetzea gura izaten dute eta Goibekokalek hori egiteko aukera ere ematen du, hau da, ezizen batekin izenpetzea idatzitakoa. Hori bai, Guk, derrigor jakin behar dugu zure izena, abizena, NAN zenbakia eta telefonoa. Hau guztia dena legalki lotuta edukitzeko bakarrik da. Zure izena betirako gordeta eta ondo gordeta geratuko da.

Animo ba, izenakin edo izen barik hau orrixau zure orrixa da!

Iban Arantzabal Arrieta

AENOR

**ER**

Empresa Registrada

ER-714/2/96

*Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatuak.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



## Arixan-arixan

**M**ondik hasi?

Oraintxe ere neure burua-rekin harrika! Folio zuria jarri zait aurrean lotsagabe eta... sentitzen dudan ikara! Nahas-

pilan, golpeka, guztiak batera etorritako ideia zaparrada, zelan lotu?

Ezertan ekin aurretik beti hartzen ditut azken alea eta beste aurrekoren bat, lehendik ere irakurrita eduki arren. Oraingoan ere zirrara batek astindu dit bizkarrezurra: Nola eman gazteon maila? Badaezpadako gazteria zagok ba gure herrialde horretan!


Arazoak arazo, eta optimismo-gorabehera batzuk bazterrean utzita, hemen aurrera egin beharra dago. Horrela esan ohi dute gure nagusiek (Hemen aurrera egiñ bihok!). Eta aurrera egin zutelako eurek gaude gu hemen. Ez dakit gure belau-naldikook zenbat egingo genuen, baina zeozer egingo zuten batzuek behintzat, honelako jende potentea ikusten dudanean Elgetan orain: aldizkari honetako lanetan, kirolean, kulturean, eta oihartzun isileko beste horrenbeste edo gehiago ere izango dela pentsatzen dut.

Aldizkari honetatik urrun dabilen batek, bere burua goian esandakotik gutxietsita badauka ere berdin: aurrera egiñ bihok! Gure etxeko 81 urteko gazteak ere halaxe esan du beti. Orain ere bai. Aurrera eginez gero, zerbait egiten da, eta asko uste barik, ondorengoei uzten diegu herentzia; horre- xek balio du: borondatez, atzetik datozenei utzi diegunak.

Gure senitxartera jaixo barri dan Amaiai ongiatorrixa emoteko bilduko gara gaur eta aurki ekingo dotzau Elgetako jatorrixa ta kontuak esaten neskatiillai. Egixa esan, amamak, honezkero kontau dotzaz, Peru ta Marixanak, eta batek daki beste zenbat; aitxixak be pentsauko eban ze paraje erakutsi bihar dotzazen oinez hasittakuan... ta holako kontuak.

Urriñ egonagaitxik, ez jaku sustarren arrastuoi ahaztu, ta txixixak be bidian jarri biharko dittugu.

Beatriz Zabalondo



## Mezua, mezulariak eta errudunak

**L**elengua: Azken hilabete- lan nahikua zalaparta ibili dabe egurdixa zala eta etzala komunikabideetan. Eguraldi txarra iragarri eben horretan diharduten adituek. Mezua txarra nunbait, eurixa egin behar eban

lekuetan (lau egunerako jendea joan zeikien leku guztietan, behingoz) hoteletakoak hasarre: "turistak uxatu besterik ez dituztela egiten", "ikaragarrizko galerak eduki dituztela", "aurrez lekua eskatu zuten gehienak atzeratu direla", "denuntziatu egin beharko lituzketela" etabar luze bat, danak halakoxe erretolikan.

Zer datorren ezkutatu eta talo palia baino eguzki haundiagoak ipini beharko leukiez, nunbait, meteorologuok. Errekauxa gustau ez eta errekadista egurtu. Hori bai, danak onartze eben eurixa gogoz egin ebal, baina... etzeuala eskubiderik!!

Guzti horretan lainuak ziran errugabeenak.

**Bigarrena:** Eguraldiarekin bezala, euskal abokatuek euskaldunok epaitegietan euskaldun izateko ditugun trabak denen aurrean agerian laga dabezenian eta epaile batzun jarrera gure hizkuntzaren bape aldekoa ez dala esan dabenian, mezua egia dala onartu eta mezulariaren modu antidemokratiko eta indarkeriazkoa aurpegiratu dotze, hola ez direla gauzak egiten esanez, ... estilo kontua nonbait. Euskeria, bitartean, baztertua. Juezak ez dabelako ulertzen norbera mutu.



Euskaldunok etorri berriak bagina bezala... Izan be "señorla" berba potolo baten aurrean zer balio dau "jauna" bakarrik esatiak!!

Bide horretan euskeriak ez dauka errurik.

**Hirugarrena:** Azkenik beste mezulari batzuk aitzatuko ditzut. Honek Gasteizen eitxen eben lana. Han inon kontuak entzun eta zuzenean Madrileria bialdu. Telefono eta mikrofono, kablia eta konesiOua, dana entzun, grabau, eta "Centralera" bialdu. Mezulari honak baina tekniko txarrak: periodikoetako erretratueta ixa esparadrapuaz eindako enpalmeak ikusten zian, ... eta azkenian belarrixa ipinita eukiela ... harrapau!Beharrezkoa ei zan hori eitxia, bidezkoa gaitz haundiagoak ebibatzeke, inundik bez ilegala, alegala zerbait izatekotan,... mezuak igorlea eta hartzailea eukazan, danak haizezkuak... izenak jakin diren arte.

Eta guzti honetan, demokraziak ez ete dauka errurik?

Jose Angel Mikeo



## GOJBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.  
**Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar.  
**Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza.  
**Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).  
**Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

### Pello Alberdi elgetar margolariaren lana ikusgai Bilbon

Elgetar margolariak Galeria Berta Belazan ditu bere margoak. Margoen erakusketa apirilaren 16an hasi zen eta maiatzaren 12ra arte egongo da ikusgai. Pello Alberdiren kuadroak Galeria Bilboko Plaza Arriquirar, 5ean daude. Ordutegia astegunetan goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:30etara eta arratsaldean 17:30etatik iluntzeko 21:00etara.

### Ozkarbi Eguna maiatzak 3an

Urtero bezala aurten ere maiatzaren lehenengo egunean Ozkarbi Eguna izango da. Bertako bazkideentzat bazkari eta dantzaldia izango da.

### Herri Urratserako joateko txartelak salgai.

Urtero bezala, aurten ere, maitzarekin batera badatoz Ikastolen aldeko jaiak. Maiatzak 10ean Senpereko lakuaren bueltan Herri Urrats ospatuko da. Gazte Asanbladak egun horretarako autobusa antolatuko du. Txartel bakoitzak pta. balio ditu eta Patxi Taberna eta Gaztetxean lortu daitezke. Irteera ordua goizeko 8:00etan izango da.

### Aurten Asentzio Eguna maiatzaren 24an

Orain dela 4 urte, Gazte Asanbladak berrezkuratu zuen hau egunagu. Aurten maiatzaren 24an ospatuko da. Maiatzaren 22an Piztiak talde ondarrutarraren kontzertua izango da entzungai Gaztetxean. Hurrengo egunean ere, 23an, beste kontzertu bat izango da, Arakajum taldearekin. Asentzio egunak urtero bezalako egitaraua izango du. Trikitilariak, meza, dantzariak, bazkaria, erromeria... Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude Gaztetxean eta Patxi Tabernan. Txartelaren kostoa 1.500pta. izango da. Bazkariaren ordua eguerdiko 14:30etan izango da.

## 8 emakume elektrizitara, iturgintza eta automobilen mekanika ikastaroan

Etxeko lanak eta ardurak gizon eta emakumeen artean trukatzeko tailerren barruan, Elgetan emakumeentzako ikastaro bat egiten ari dira.

Ikastaroa Apirilak 21ean hasi zuten eta ekainaren 4ra luzatuko da. Eskola zaharretan ematen ari diren ikastaro honetan emakumeek elektrizitate eta iturgintza landuko dituzte lehen-dabizi. Bakoitzaren iraupena bi astetako izango da. Lehenengo bi zati hauek Lanbide Hastapenerako irakasleak emago dituzte.

Automobilen mekanika aldiz Elgetatik kanpo emango da eta honек ere bi astetako iraupena izango du.

Bailara mailan, gizonek etxeko lanak ikasteko ikastaroa zegoen antolatuta. Nahiz eta Elgetako batek ere izena ez eman 20 bat gizonek osatutako taldeak hartu du parte ikastaro honetan.

Ikastaroan dauden Elgetar emakumeak oso gustora omen dabilta bonbila eta kable artean.

## Giro txarradela eta Aste Santuko prozezioa eliza barruan

Aste Santuko ospakizunen barruan, Bariku Santurako prozezioa egiteko asmoa zuten. Horrela, ohitura zaharrak berreskuratzeko ahalegina egin zen. Aste Santu guztian zehar egin duen eguraldi euritsuak Santuen irudiak kalera ezin ateratzea ekarri zuen. Hala ere Prozezioa bertan behera utzi beharrean, eliza barruan egin zen. Nazareno, Ama Doloretako eta San Juanen irudiek hurrengo urtera arte itxaron beharko dute kalera ateratzeko.



GRUPO  
**IFA**  
 Produkturik onenak,  
 prezio onenean  
**ALDI**  
 Tel:  
 76 80 98.

Bandoi Bolinaga  
 METALAK  
 FS7 18  
 Tel - Fax 76 80 64  
 ELGETA

# Santiago eta Andres apostoluen erretaulak kontserbazio eta zaharberritzeko tratamendua jaso

Donostian Diozeziaren museoan ikusgai egon ondoren, aurreko asteburuan Santiago eta Andres apostoluen erretaulako irudietan egindako kontserbazio eta zaharberritzeak izan dira ikusgai Elgetako Andre Mariaren Zeruratzea Parrokian.

Aste honetan bertan irudiak erretaula berritura igoko dituzte, baina hori egin aurretik elgetako biztanleei irudietan eginko berritzeak ikusteko aukera eman nahi izan zien parokiak.

Barikuan hilak 23 kontserbazio eta zaharberrikuntzarako tratamenduak aurrera eraman dituzten teknikariak, egin dituzten lanak nola egin dituzten erakutsi zizkieten bertara hurbildutakoei. Lan hauek egiten "Restauraciones Siglo XXI" enpresako bost teknikariek hartu dute parte.

Kontserbazio lanetan batez ere egurra sendotu eta koloreak finkatu dituzte. Zaharberrikuntzarako tratamenduak aldiz, hauts eta barniz herdoil-

duak ezeztatu, babesle eta barnizak eman, bolumen galduak zituzen irudi eta arkitektura formak osatu... izan dira.

Berritze lan hauek Diputazio eta Diozeziaren arteko hitzarmen baten ondoren datoz. Lanak Gipuzkoako Foru Aldundiko "Kultura eta Euskara" Arloak emandako diru laguntzari esker eraman dira aurrera.



*Lehen solairuko ezker alboaren ikuspegi orokorra.*

Erretaulak duen garrantzia Eusko Irakaskuntzak Arte Errenazimenduko arteari buruz antolaturiko ihardunaldietan ikusi zen. Diozeziaren Museora erretaula ikustera ihardunaldi hauek parteideak eta Deustu eta EHUko arte katedra-

dunak joanziren. Polikromiaren gainean Gipuzkoarako erretaulak duen garrantzia aipatu zuten errenazimendu arteko bakarra baita polikromia aldetik.



*Garbikuntzaren bilakaera.*

**IBAIBA-  
RRIAGA**  
GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

**BILTEGI  
DENDA**

Zugandik  
gertu behar  
dugun beste

Salbador 24 Tel: 768206

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

**OSTATU  
JATETXEA**

## Angiozarko Bira

Ohi denez datorren maiatzaren batean korrituko da Angiozarko Bira izenarekin ezagutzen den zikloturisten irteera. Goizeko zortziretan elkartuko dira Angiozarko plazan eta ordu bata eta erdiak inguruan bukatu leku berean.

Bide erdian hamarretakoa zerbituko da eta behin Angiozarrera heldu ondoren bazkarian elkartuko dira txirrindulariok Ortzi jatetxean.

## Pagomendi Soziedadearen eguna

Maiatzaren batean baita ospatuko dute Pagomendi Soziedadekoek elakrtasun eguna. Hamarrak eta erdietan meza izango da hildako sozioen alde, ondoren kalejirak soinu-joleekin eta ordu bietan bazkaria. Ondoren, iluntzerarte, ez da faltako tenoreen kantutxo eta soinu hotsik.

## Frontoiko lanak

Hasi dira dagoeneko hainbeste esperotako frontoia berrizteko lanok. Jadanik grada zaharrak kenduta daude eta aldagelak egiteko egin behar zen lekua ere eginda dago, beraz kendu behar ziren lur eta eskonbroak kenduta daude eta orain grada berrien artetik jasoko diren zutabeentzako oinarriak egiten dihardute.

Behin teilatua jaso ondoren gradak egingo dira eta azkenik aldalekuak eta biltegia izango den etxea.

Lanok sei hilabetetan egitekoak dira eta dena ondo badoa San Migel ingururako pelotan egiteko moduan egongo gara euria egin behar duen begiratu barik.

# Abiadura Haundiko Trena. Garraio eta Herrilan Sailburuaren Agindua

1998ko martxoaren 26ko datarekin azaldu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (Boletinean) "Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala"ri hasierako onespina ematen dion eta jendaurrera eta informazio ofizialera ateratzen duen agindua.

Orain bi hilabeteko epea dago (maiatzaren 26rarte) edonork bidetzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan. Bi hilabeteko epe horretan nahi duenak azter dezan Garraio Azpiegitura Zuzendaritzan izango da plana, Gasteizko Welling-

tongo Dukearen kaleko 2an.

Administrazio publikoek alderantziz hilabeteko epea izan dute nahi dituzten ohar eta iradokizunak aurkez ditzaten Planaren gainean.

Bergarako Udalak eta Deba Garaiko Mankomunitateak LKS injinaria enpresari agindu zioten Angiozar-bailarako pasabidearen ordez Epeleko alternatiba ikertu zezan. Lan hori aurkeztua dago eta bi erakundeok onartua ere bai, orain falta dena dagokion lekuan bere epean aurkeztea da, orain artekoetan huts egin baitute.

## Euskal Bizikleta

Hilaren zazpian pasatu zitzaigun Angiozartik Euskal Herriko Birako bigarren etapa eta jende ugari bildu zen kaletik hasi eta Asentziaraino tartean. Lehen aldia da mendate hau garrantzi haundiko itzuli baten barruan sartzen dutena, orain arte gutxitan erabili baitute, batez ere gazteen kategorietan, dituen aldapa gogor eta plano aldaketengatik. Itzuliko sailkapenean, Asentzio bigarren kategoriako mendatea zela zegoen adierazita

Hogei minutuko atzerapenarekin pasatu ziren txirrindulariok eta horrek Euskal Telebistako zuzeneko seinalea eten beharra ekarri zuen, notizien orduarekin partekatuta baitzen Angiozartik pasatzeko unea. Bideoa etxean grabatzen jarrita joan zirenek ez zuten gero gure

herria ikusteko aukerarik izan.

Euskal Herriko Itzulia pasatu bazen Eibarko Euskal Bizikletaren beste ekitaldi bat Pazkua ingururako dago iragarria. 3. Etapa, hau da, LAGUARDIA-BIASTERI - BERGARA izango da gure herritik pasatuko dena maiatzaren 29an. Guztira 152,200 Kmtako luzera du eta Angiozar 131,4 kmtroan eta Asentzio 134,6garren kilometroan hartzen ditu, helmugarako gutxi falda dela beraz. Gainera, behin Angiozarrera igotzen hasten direnetik, Itxurrikotik aurrera, edatekoen abituailamendua debekatu egingo da. Asentzio gaina puntuablea eta lehenengo kategoriako mendatea izango da. Zale-tuentzat egitarau ezin hobea etxean bertan!!

Taberna Zaharra  
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria

Erremerteritza


BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA

Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14



Ez genuen uste hain zaila izango zenik. Askotan gertatzen zaigu erretratu desenfokatu eta larregi edo borrosoegi jartzea. Hala ere, oraingoan ez zegoen desenfokatura eta ez dakigu zergatik jendeak ez duen asmatu.

Errezena erantzuna ematea izango litzateke baina, hobeto pentsatu ostean berriz ere erretratu beraren erantzuna eskatzea dela onena erabaki dugu. Errazteko, gaur egun zutik dirauela esango dizuegu. Gaur eguneko erretratu ere jarri dizuegu aldamenean hain zaila izan ez dadin.




Hiru argazki dituzue bada bistan: bata gerra aurretik ateratakoa da, bestea gerra pasatu izana erakusten du eta gaur egungoa ere jarri dizuegu, hori bai, piskat desenfokatura eta paraje polit bat erakusten.

Txoritxo batek esan digu Jose Luis abadeak ere ez diola antzik hartzen paraje honi baina ziur pista hauekin berak ere bada kiela ze parajetaz ari garen berbetan.

Erantzuna badakizue nora bidali, Goibekokale Salvador kalea 2 Kultur Etxea, Elgeta (Gipuzkoa).




# Ze pentsatzen jatzu leku publikuetan erretzen ez lagatzia?



Arkaitz Alberdi  
Bilargiña (24 urte)


Ondo pentsatzen jata leku publikuetan erretzen ez lagatzia gaiñera hola-ko leku danetara zabaldu bihako litzake hori legioi. Iñoiz ez jata pasau, fan leku publiko batera eta bateron batek hemen ezin dala erre esatia, baiña bai abioietan ta ordu asko erre barik egotia.

Oso ondo pentsatzen jata erretzen ez lagatzia mundu guztia dabilen lekuetan, danok dakaue-lako eskubide bardinak holako lekuetan. Leku publiko danetara zabalztzia be ez jatan haiñ gaizki pentsauko.



Tere Deskarga  
Etxekoandria (30 urte)

Ez jata ondo pentsatzen leku publikuetan erretzen ez lagatzia, adibidez taberna baten erretzia ondo pentsatzen jata. Neri ez jata iñoiz pasau bateronbaten ez erretzekoesatia, ez naizelako erretzailia.



Pedro Mari Ubeira  
Bilargiña (59 urte)

Gogorregixa pentsatzen jata leku publiko guztietan erretzen ez lagatzia, leku batzutan ondo egongo litzake baiña danetan ez. Neri ez jata iñoiz pasau holakoik, gaiñera ez naiz asko erretzen dabenetarikua.



Jabier Belar  
Bilargiña (51 urte)

Uste dot bakoitzak pentsau bihar dabela erre edo ez. Ez jata bidezkoa pentsatzen debekatzia toki publikuak diralako, baiña bestiak be errespetau egiñ bihar dira. Ez jata ondo pentsatzen holako leku baten erretzen egonda ez erretzeko

Ez jata ondo pentsatzen toki publikuetan ez lagatzia erretzen. Uste dot horrek tokixok publikuak izatera erretzia libre izan biharko litzakela. Neri ez jata iñoiz pasau holako toki baten ez erretzeko esatia.



Beatriz Bouzas  
Etxekoandria (31 urte)



Ines Irzabal  
Etxekoandria (46 urte)

**ELKORO TORLOJU LANTEGIA**  
**DEKOLETAIA ETA FIJAZIO SISTEMAK**  
Berraondokua 2/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

**EROSLE**  
M. Asun Agirre  
Salbador 26. Tel: 768190

7  
L  
E  
A  
P  
A  
9  
M  
D  
E  
9  
A  
M<sup>a</sup>  
**ESTHER**  
Tel: 76 81 67

Kartetan jokatzeko giro egokia  
Tel: 768093  
**Patxi Taberna**

Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus Arrazola  
**VIVO**  
Janari denda



**Aries:** Aste Santua gustora pasau dok/don baiña oiñ ekin biharrai.

.....  
**Taurus:** Zezen adarretatik heltzia baiño estrategia hobeik ez jaok/jaon. Badakik/badakiñ oiñ zelan egiñ aurre!

.....  
**Geminis:** Oporretara ez haiz fan ta horregaitxik ez haiz bestiak baiño eskasau ibiliko.

.....  
**Cancer:** Maiatzak bateko zubixan be botak jantzi ta fan hadi Udalaiztera.

.....  
**Leo:** Liburu eder bat irakurtziak ez dosta bape kalteik egiño, orduan badakik/badakiñ nora fan.

.....  
**Virgo:** Zelain bateko lili bati ostuak erantzi ezkerok jakingo dok/don maitte haben.

.....  
**Libra:** Ez daukak/daukan ezertarako pazientziak, ikasi biharko dok/don ze dan hori.

.....  
**Escorpio:** Udabarrixa aillegau dala ta ez dok/don ezer somatzen tripa barrenian?

.....  
**Sagitarius:** Bakaillaua dantzan egittiak ez jok/jon modernidadia esan gura, horrek beste aire bat emoten jostzak/jostzan.

.....  
**Capricornio:** Esamiñak preparatzeko sasoi be gaiñian dala konturatuko hitzan onezkero ezta?

.....  
**Acuarius:** Ferixara fan hadi ta erosi hitzak/hitzan barazki edar batzuk Pizzak alde batera lagata.

.....  
**Piscis:** Euzkittako betaurrekuak jantzitxa ez dok/don oporretako bixamonia ezkutauko. Ez hoixe!

## Vicente Fajardo Bihargiña (35 urte)

**Zenbat urte Elgetan? Nun bizi ziñan lehenau?** 2 urte. Najeran.

**Zer da gehixen gustatzen jatzuna Elgetatik?** Herrixan trankiltasuna eta leku batzutako argi faltia.

**Zenbat langile dakazuz?** 2 langile.

**Ezagutzen dozu Fernando**

**Amezketarra?** Ez.

**Zein miresten dozu?** Buruan arazoik ez daukan eta sasoiko dagon pertsonia.

**Lanbidia aldatzekotan zer izango ziñake?** Artisaua.

**Zer gauza kenduko ziñuke mundutik?** Dana uste dot biharrezkua dala munduan baldin badago zehozergaittik izango da.

**Zelakua da bizi-modua Kuban?**

Gauza materialetatik gaizki baiña hemengo jentia baiño askoz posixau bizi dira.

**Zelan bururatu jatzun**

**Kubara fatia?** Lagun batek esan soztan berakin juatia nahi neban.

**Zer da gehixen gustatzen jatzuna zure andriana?** Dana jeneralian.

**Zein de zure bizitzako filosofixia?** Bakoitza bere pentsamenduekin bat egotia.

**Zer bentaja daka empresarixua izatiak?** Momentu askotan diru gehixau irabazteko oportunitadiak daukazuz, baiña arriskuak be oso haundixak dira.

**Noiz da zure semian urtebetetzia?** Ekaiñak 5.

**Euskaldunak ala kubarrak nahixau?** Pertsona moduan euskaldunak nahixau nahiz ta kubarrekin be oso ondo arreglau, jente oso ona da.

**Sekula euskeria ikasteko asmoik badakazu?** Bai, lotzia emoten dosta euskeraz ez dakitela esatia.

**Zer pentsatzen jatzu asteko lanor-duak 35 izatia?** Relatibua da, ez dot uste horrekin parua bukatuko zanik.

**Zelan ikusten dozu zure burua hemendik urte batzutara?** Oin nagon moduan egon ezkerok konformatzen nai.

**Zenbat diru gastatzen dozu astian tabakotan?** Gehixegi.

**Zein da andriai egiñ dotzazu azkenengo erregalua?**

Belarritxako batzuk.

**Uste dozu gaziak ondo informata darelara IHESan gaiñian?**


Informatzia nahi baldin bozu uste dot nahiko informaziño dagola.

**Dantzan egitteko trikitixa ala saltsa?** Saltsa.

**Pasientzia handiko gizona za?** Ez.

**Elgetako zein txoko margotuko ziñuke gostoren?** Elorrixotik etortzen dagon fatxada ingurua.

**Guggenheimera joateko asmoik?** Egunen baten juango nahi.



Berezitasuna:

Buztana.

Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak


Teilatuak  
Etxaurreak

Sukaldeak  
Komunak

Otzango Behetxea Baserria. Tel: 860156

# ALKATEAK erant

Patxik otsailaren 1ean bete zituen 22 urte alkateztan. Elgetar askok bera ez beste inor ezagutu dute alkate. *Goibekokalek* gaur egun herriak bizi duen egoerari errepaso bat egitea izan du helburu.



Patxi 22 urte bete ditu alkateztan.

Elgetako Udaltxeak irabaziak izan ditu aurtan baina oraindik zor handiak ditu. Nola heldu gara zorrak edukitzera? Nola irten zulotik? Zorrak baditu, beste Udaltxe askok bezala. Elgetak duen zorra %19koa da eta Gipuzkoako Foru Aldun-

diak %25ra arteko zorra onartzen du eta beraz ez dugu kezkarik. Bestalde, zulotik ateratzeko Domingo Iturben salduko diren lurrekin 70 milioi ateratzea espero da.

**1998. urteko aurrekontuan pertsonal gastuak (36 milioi) ia altuenak izango dira. Zein esplikazio du honek?**

Elgetako Udaltxeak dituen pertsonal gastuak ez dira beste Udaltxeak dituztenak baino handiagoak. Udaltxeak duen plantila nahiko justua da eta horiei ere ordaindu egin behar zaie. Beste herriekin konparatuz ez dagoela alde handirik uste dut. **Zergatik atzeratu da hainbeste bariantearen asuntua?**

Ni neu ere oso kezkatua nago.

Behinbetiko proiektua duela hiru urte egin zen, baina zorionez edo zoritxarrez Foru Aldundiak beste gastu batzuk ditu, hala nola, Nafarroako errepideak, Eibarretik Gasteizera doana... Niri asko gustatuko litzaidake bariantea egiteko obrak datorren urtean

hasiko balira.

**Kaleko jendearen ustez ikastola berriko eraikuntza larregikoa da. Zer esango zenieke uste hori dutenei?**

Ez dakit informazio faltagatik izango den edota kaleko jendeak eraikuntza horrek dituen funtzioak ikusten ez dituelako izango den. Edifizio hori hiru zatitan banatzen da. Lehenengo biak ikastolara eginak dira. Beheko lokala auditorio bezala erabiliko da eta espero dugu abendurako martxan egotea. Eta azkenik badago 400 metro karratu dituen lokal bat umeak jolasteko erabiliko dena. Dena den, Udaltxearen helburua, Mahalako edifikazioa seguruenik bota egingo dela jakinik, eta patronatoaren oneritiz konplexu kultural bat eraikitzea da.

**Euskarak eta kirolak aurrekontuaren %9 bakarrik hartzen dute. Ez al da gutxiegi Elgeta bantentzako?**

Seguruenik gehiago beharko litzake, baina dena den, bere momentuan esfortzu handia egin zen eta esan daiteke Elgetako kirol instalakuntzak nahiko onak direla. Euskarari buruz, esan, ikastaro bat egin dela eta Udaltxeak esfortsua egin duela


behinik behin.

**Zein jarrera du Udaltxeak sindikatuek eskatzen duten 35 orduko lanorduen inguruan?**

Udaltxeak ez du gai hau plenora eraman eta beraz, Udaltxe bezala, ez du inolako erabakarik hartu. Nik uste dut berez lortuko dela eta helburu bezala edukitzea garran-tzitsua da.

**Nolako erlazioa duzue Herri Batasunarekin?**

Normala. Guk gehiago nagusia dugu (EAJ 5 zinegotzi eta 2 HBK). Beraiek komisio bat




Alkatea Udaltxeko bere bulegoan

eramaten dute, adostutako komisioa gainera. Esan daiteke gure arteko erlazioa normala dela.

## F . O . R

Kalitate kontrola  
Piezei azken ukituak  
Tel: 76 80 38




salvador  
19  
behea

M<sup>A</sup> Karmen  
Lenzeria

Lentzeria eta  
kosmetika gaiak

Salvador zeharbidea.  
Tel: 789040




San Roke 6  
tel: 768168.

# zun beza PATXIK

Patxi Basauri duela 53 urte etorri zen mundura. Gazte denboran, juergan ibiltzeaz gain Maestria Industrialeko ikasketak egiteko denbora izan zuen Eibarren. Hauek eta beste hainbat berezitasun honako elkarrizketa pertsonalean dakarzkizuegu.

**Zer du gustoko Patxik?**

Niretzako oso garrantzitsua da lagunekin ibiltzea eta parranda batzuk egitea Udaletxeko arazoez piskat ahazteko. Bestalde, zinemara joatea eta musika oso gustoko di-



tut.

**Noiz eman zenion neska bati lehenengo muxua?**

Hala Jangoikoa! Hamalau urte bete aurretik.

**Zenbat nobia izan dituzu?**

Ofiziala bat ere ez. Estraofizialak batzuk bai.

**Zergatik ez zara ezkondu?**

Ez dakit. Dena den oraindik badut denbora.

**Zer egingo luke Patxik gustoko duen pertsona konkistatzeko?**

Nahiko galdera zaila da. Berari zuzenean esango nioke eta kitto!

**Gazte denboran juerga asko egiten al zenuen?**

Bai, gaur egun baino gehiago. Juerga asko egiten genituen.

**Noiz egin du Patxik negar azkenengo aldiz?**

Ez naiz gogorazten. Amorratio malkoak nohizbeinka ateratzen zaizkit, baina ez dakit noiz egin nuen negar azkenengo aldiz.

**Hiru hilabeteko bizi iraupena ematen badizute zer egingo zenuke?**

Seguraski ezer ez. Nahiz eta medikuek horrelakorik esan nik bizimodu berarekin jarraituko nuke esperantza ez baita inoiz galdu behar.

**Etxeke lanetan la-**

**guntzen al du Patxik?**

Gutxi. Garbitzen baino zikitzen gehiago laguntzen dut.

**Ez al duzu uste oso gogorra dela gaupasa egin ondoren gramolarekin esnatzea?**

Nik uste dut gramoliakin esnatzea baino neu juergan ibili eta gramola jartzeko jaikitzea gogorragoa dela.

**Z e i n ipiniko zenuke zure ordezk bezala udaletxean?**

Nire desioa hurrengo alkatea ona izatea da. Berdin zait gizonetzkoa ala emakumezkoa den. Ni baino hobea bada denontzako hobeto.

**Demagun zure semea intsumiso**

**egiten dela. Zein jarrera hartuko zenuke?**

Zentzu horretan oso libre naiz. Norberak bere bizimodua aukera dezake. Ahal baldin banu lagundu egingo nioke.

**Defini itzazu kontzeptu hauek:**

**Gaztetxea:** ondo dago, nahiz eta denen gustokoa izan ez. Nik uste dut gauza batzuk hobetu daitkezkeela.

**Bigotea:** bigoteak modan daude. Nik duela 18 urte utzi nuen eta ez daukat kentzeko asmorik.



*Noizbehinka parranda egitea gustoko du Patxik.*

**Maitasuna:** maitasun klase asko daude. Denak oso garrantzitsuak dira.

**Zer iruditu zaizu elkarrizketa?**

Beno, nahiko polita izan da. Balekua.

## ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



## HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA

Gu  
D.B.H.-

# Negutegi efektua

ko 2.  
mailako ikasleak gara eta gure munduan dagoen arazoetari-ko bati buruz arituko gatzazue, Negutegi Efektuaren gainean hain zuzen ere.

Hasteko Negutegi bat zer den azalduko dizuegu: Negutegi bat behirazko zein plastikozko erai-kuntza bat da. Bero handia behar duten lore-ak eta beste zenbait landare "zaintzeko" balio du. Alderantziz ere izan daiteke hotza behar dutenentzako. Lurrean ere gauza bera gertatzen da: ozono geruzak beira edo plastikoaren funtzioa betetzen du.

## Nola funtzionatzen du?

Eguzkia beiran zehar; plastikoan zehar... sartzen da eta negutegia berotzen du; zapaia eta ormek, beroa ateratzea eragozten dute. Lurrak antzeko fenomenoak jasaten du. Eguzkitik etorritako izpiek lurra

jo-tzen dute eta lurrak isladatutako beroak ezin du espaziora ihes egin; atmosferako zenbait gasek igaro ezineko hesia osatzen baitute. Hori gertatuko ez balitz lurraren batz besteko temperatura 18°C-koa izango litzateke.

## Zergatik sortzen da?

Honako gas toxikoetatik sortzen da negutegi-efektua:

- \* Karbono dioxidoa: gure lantegi, automobil,... Energia sortzean gertatzen da.
- Metanoa: metanoa sortzeko bideak hauek dira: animalia belarjaleen gorotzetatik, arroztegitatik eta zabortegietatik.

Nitrogeno oxidoa: Basoak erretzetik, ibilgailuen ihespidetatik,

nekazariak erabilitako ongarrietatik,...sortzen da.

\* CFC: Mende honetan asmatutako gas bat da. Oraindik atmosferan leku

txiki bat hartzen badu ere izugarritzko eragina du.

## Ondorioak:

Temperatura altutzen du, honek poloetako izotz masak urtzea era-

giten du, itsasoaren ur maila igoz.

Itsasoaren

maila igotzeak berriz, itsasertzeko lur guztien desagertzea esan nahiko luke.


Temperatura igotze horrek beste alde batetik basamortutzea ekarriko luke...

## Gure mezua beraz ondokoa da:

Natura gure bizia bezala zaindu behar dugu, bera gabe gu ezin baikara bizi.

Bueno, hurrengorarte.

D.B.H. 2KO IKASLEAK



**HAIZEA**  
**Transpasoan**  
**TABERNA**

Taberna hau traspasatzen da.  
Tel: 768256

Jesús Marí Montiel  
**ITURGINTZA**  
**ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.  
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719


**KONPONKETAK SUKALDE**  
**ETA BAINUGELETAN**

Goibekokale 34.zk

## WHISKYAREKIN GERTATUTAKO OTARRAINSKAK

Sukaldariak: Imanol Kortazar eta Jabier Leanizbarrutia.

Intxorta Elkarte



### NOLA PRESTATU:

**Lehenengo eta behin otarrainskak garbitu:** erdi izoztuta daudela, erditik ebagi eta ondo zabaldu. Barruko hes-teak eta azido borikoa ( kontserbantea ) kendu, eta uretan pasatu.

Buztinezko ontzian olio berotzen ipini. Berakatz txikituta bota eta gorritutakoan sutatik baztertu. Hozten laga.

Hoztutakoan, otarrainskak zabaldutako aldea gora begira ipini ontzian. Sutan ezarri. Okela zuritzen zaienean banan-banan gatzitu. Ondoren whisky gaine-tik bota eta su eman. Whisky erretzean edo sua emetzen denean, perrexila gainean ipini eta listo!

### OSAGIAK ( 4 lagunendako ):

- Kilo bateko otarrainska (tamaina erdikoak )
- Boteila erdi oliba olio, gradu batekoa
- Laupabost berakatz ale
- Basokada erdi whisky
- Perrexila
- Gatza



### GOMENDIOAK:

- Eskatzean oso kontutan izatekoa da su gaineko kanpaia whiskyari sua ematerako orduan.
- Garbitzerakoan hesteak eta azido borikoa ondo kentzea oso garrantzitsua da.
- Otarraiskak eginda daudela jakiteko okela zurituta eta buztana tente izan behar dute.

**IÑAKI JATETXEA**

Leku paregabea,  
eguneko menua

Astelehenetik ostiralera  
zabalik goizeko 7:00etatik

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxe: 768243

**TAPEM**, S.A.

Trokelak eta estanzazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

## Elkorok Aspeko finala jokatu du

Finalerdietan Tirin III.a gainditu ondoren Eugi eta Bernaren arteko partiduaren irabazlea izango du aurrez-aurre finalean

Aitor Elkorok ongi baino hobeto ikasia zeukan ikasgaia. Aurreko kanporaketan Capellanen aurka bereak eta bi ikusi ondoren ez zegoen prest Titinen aurka estuasunak pasatzeko. Errioxako idoloak, Capellanek erabilitako taktika bera erabili zuen, ahal zuenean tantua bukatzen saiatuz. Partiduko lehen bi tantuak horrela lortu zituen. Dena den, aurrean zuen Elkorok ez zen lehenengo kanporaketakoa. Askoz ere biziago zebilen kantxan Titinek egin zezakeen edozein jokaldiri ongi erantzuteko.

Partidua bizia izan zen oso. Bi pilotariak bizi ematen zioten pilotari, batez ere erri-

xarrak Elkorok bere onetik atera nahian. Elkorok, dominatu arren, ez zuen Triciokoaren defentsa gaintitzea lortzen eta zortzigarren kartoirarte berdindurik joan zen partidua (8-7 Elkororen alde). Momentu horretan Titinek behera egin zuen eta Aitor 15. kartoirarte joan zen errenkadan. Hortxe erabaki zen partidua, Tarte horretan hiru sake sartu zizkion Elkorok (guztira 6). Azkenean Elkorok 22 Titinek 12.

### 4 t'erdiko txapelketa

Ezin esan gauzak ongi doazenez elgetarrentzako 4 t'erdiko txapelketan. Arantzeta da txapelketan gelditzen den

bakarra. Eñautek bi partidu jokatu ditu orain arte eta biak nahiko erraz irabazi ditu. Lehenegoa Bersistainen aurka (22-5) eta bigarrena berriaz, Berrrioren kontra 22 eta 8. Peñalverrek ere jokatu du beste partidu bat repeskatua izan ondoren. Oraingo honetan ere Ortizen aurka gertatu zitzaion bezala galtzaile atera zen (22 eta 8 Egimendiaren aurka).

Bukatzeo, Ubera II.ak 22 eta 13 galdu zuen Nuinen aurka partidu oso txarra jokatuz. Era berean, Xabier Deba Arroko txapeldun izan da Inurragi bikote duela Murrumendiarazi eta Gutierrez 22 eta 11 irabazi ostean.



Peñalverrek ezin izan zuen aurrera egin.

## Estampaciones Elgeta partidu erabakiorraren zain

Estampaciones Elgeta Pescaderias Pro talde Ermuarraren aurka jokatu behar duen partidu erabakiorraren zain dago. Partidu hau erabakiorra izan daiteke, izan ere talde hau garaituz gero, txapelketa beren eskuetan izango lukete. Momentu honetan, elgetarrak dira sailkapenburu eta beraien atzetik dau-

de ermuarrak garaipen batetara. Orain dela gutxirarte bi taldeak elkarrekin egon dira lehen postuan, baina Ermuarrak galdu zuten partidu bat dela eta (hiru bakarrik aurkeztu ziren), berdinketa hautsi egin da.

Bitartean eta liga amaitzeko 5 ihardunaldiren faltan, Estampa-

ciones Elgetak partiduak irabazten dirau. Azken partiduetako bat, sailkapen nagusian erditik bera zegoen talde baten aurka lortu zuen. Bost jokalarik bakarrik joan ziren partidua jokatzerara eta hala ere nahiko erraz irabazi zuten partidua. Jokatu zuen bostekoa honakoa izan zen: Gorka, Bittor, Dani, Iban eta Angel.



**IRAMA**

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatua: 247262  
tel: 789057-768025



**ANA LIBURUDENDA**

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel. eta Faxe 768078

# Txirrindularitza: Askasibar Granadan eta Aranguren postu hobeak lortzen

Granadara joan zaigu oraingoan Askasibar izen bereko itzulian parte hartzera apirilaren 14tik 19ra bitartean. Bertan izan dugu, Sierra Nevada inguruetan bost egunez 125 txirrindularirekin lehia.

Aurretik zekarren katarro batek, haserako etapan denbora de-xente galtzea eragin zion arren, egunak pasa ahala bere burua hobeto aurkitzen zuela eta, aurrean sartzen saiatu zen. Hone-la, azkenaurreko etapan bosgarren, eta azken eta-pan laugarren egitea lortu zuen. Itzulia Jonathan Hall-ek irabazi zuen, El-getatik "Valenciaga me-morialean" lehendabiziko postuan igaro zen austra-

liarrak. Lasterketa hone-tan, Askasibar Hall-en-gandik minutu batera pa-sa zen baina Eibarrera iri-tsi orduko denek bat egin zuten.

Bitartean, lerro hauek idazten ditugula Arabako itzulian dugu Askasibar; lau egun iraungo dituen itzulian hain zuzen ere.

Aranguren berriz hasi da lehen hamaboste-tan sartzen. Apirilaren 19an izan zen Eibarko "Otxoa memorialean", 13. postua eskuratu zuen be-re taldeko hirugarrena izanez. Lasterketa honen aurretik, Mendaro, Orio eta Zarautzeko probetan parte hartu zuen; 25., 37., eta 27. postuetan iritsiz.

Ea hurrengoan hamarren duen. barruan sartzea lortzen



*Oskar orain dela gutxi ikusi genuen Elgetako maldak igotzen*

Publizitate erreportajea

## PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

- Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitateak kulturaren, euskararen, kirolaren eta abarrek kontatzen ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jaunarekin gaude (Cafés Baque enpresako Zuzendaria)
- Galdera:** Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzuelako ala errentagarritasunagatik?
- Emilio:** Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkeneko, simpatiatatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.
- G.** Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?
- E.** Euskarazko argitalpenen literatura sarieretan esku hartu izan dugu, IRUNA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.
- G.** Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandala ugari ikusi ohi dugu...
- E.** Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arrauncan eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoaz jartzen; baina, hori bai, beti zaletasunezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué,  
Cafés BAQUEko  
Zuzendari Gerentea.

- G.** Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?
- E.** Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituztenak. Azkeneko denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldezkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldu bedi eredu.

LARRAITZ ODRIÓZOLA

# ERREKALDIA

## Ermita: San Kristobal

**Jaia:** Uztailaren 10ean

San Kristobal egunaren besperan edo besperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gauzez izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoan alde (Hermandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruureneko meza ere bertan ospatzen da.

### Baserriak eta etxeak:

- |                               |                                |                                  |
|-------------------------------|--------------------------------|----------------------------------|
| - Loidi Etxebarri             | - Aldai Etxebarri              | Barrena)                         |
| - Loidi                       | - Aldai Gaiñekua               | - Edui (Eduegi)                  |
| - Loidi Bolu                  | - Aldai Aurrekua               | - Amuskibar                      |
| - Loidi Bolu berria           | - Aitzol                       | - Amuskibar Bolu                 |
| - Askasibar                   | - Gaztelu                      | - Gaittao Aldekua (Garitano A.)  |
| - Askasibar Bolu              | - Aldai Azpikua                | - Gaittao Gaiñekua (Garitano G.) |
| - Askasibar Bolu berria       | - San Kristobal                | - Gaittao Erdikua (Garitano      |
| - Belastegirena               | - Elkone (Elkoro Berezibar)    | Markezkoa)                       |
| - Meltxorrena (Unamuno Berri) | - Bitzibar (Berezibar Erdikua) | - Gaittao Barrena (Garitano B.)  |
|                               | - Bitzibar Barrena (Berezibar  | - Osingain                       |

Azkuneta eta Osineko (gaur egun Zerrajerako eskonbrera dagoen lekuraiño) urjauzi bitartean luzatzen da Errekaldia edo San Kristobal auzoa, eta Angiozar errekararen bi aldeetara zabaltzen, Hirutontorreta gainetik Txikaso gaineraino helduz. Auzoaren izenarekin ere bada halako zalaparta: Errekaldia, San Kristobal, Aldaiegia,... bertakoek San Kristobal esaten dute auzo osoari buruz berba egiten dutenean, nahiz eta beste izenak bezala auzoaren zati bati bereziki dagokiona izan, hau da, ermitaren inguruarena. Elizaren izena, edo hobeto esanda, zaindaritzat duten santuaren izena auzoa izendatzeko ez da hemengo kasu berezia, Bergaran bertan aurki baitaitezke San Prudentzio, San Juan, San Blas, Sanantobat, San Migel, San Lorentzo, San Antonio, etab. ahaztu egin direlarik jendearen eguneroko bertan jatorrizko izenak.

San Kristobalen kasuan Angiozar bailara honetako beste auzotakoek Errekaldia deitzen diote Hiruauzo errotatik hasi eta Osineko hestuguneraino zabaltzen den ibarrari, eta bereziki Angiozarko Parrokia diren etxeei.

Bestalde, azken urteetan Aldaiegia izena ezarri da modu ofizialean auzoa izendatzeko. Izen honek ere, besteek bezala zati bat izendatuko luke bakarrik: Aldai baserrien egia edo mendi aldea. Baina izen bata zein bestea erabili auzo osoa adieraziz berba egingo dugu, ikusten dugenez hiru izenok dituzten eskubideak berdinak baitira.

Auzoak duen berezitasun bat bi parrokiaren artean banatuta egotea da: Loidi Etxebarri, Loidi, Loidi Bolu, Askasibar, Askasibar Bolu, Askasibar Bolu berria eta Belastegirena Angiozarko parrokia dira eta besteak berriz Bergararako San Pedro Parrokiako



**Errekaldea: Angiozar errekararen meandroak.**

ak. Zatiketa hau Elgeta-Bergara udalerrien garai bateko mugak ezartzen du, Elgetako Udalerria ziren etxeok Bergara osatzen pasatu ahala poliki-poliki elizaz ere harantz pasatuz joan baitziren.

Auzoko etxeek ez dute multzorik sortzen, denak ere barreiatuak azaltzen direlarik erreka ondoan edo mendi hegaletan, elkarrekiko distantzia mantenduz. Arau hau bo-

luek apurtzen dute: auzoan garai baten zeuden hiru errotak (boluak) izena ematen dien etxetik hurbil azaltzen zaizkigu eta (Loidi bolu, Askasibar bolu, Amuskibar bolu)

Etxeen egitura ere oso desberdin eta berezia da, bai elkarrekin konparatuz eta baita bailarako orain arte ikusi ditugunekin konparatuz. Hiru etxe arku bikoak dira (Meltxorrena, Aldai Azpikua, Gaz-



telu) bat hirukoa (Eduegi), eta beste bat laukoa (Amuskibarrek hiru aurrean eta beste bat etxostean dauka), gauza bitxia kontutan izanik auzoko sei etxek ez dutela arkurik etxe sarreran.

Dorretxe itxurako bi etxe bikain daude: Askasibar eta Aldai azpikua, oin karratu eta lau uretarako teilatuekin. Aipatzekoak dira baita Eduegi etxea ("Armas de esta Casa Solar de Eduegi y es de Binculo y Maiorazgo" dio bere armarriaren azpian); Loidi, bere zabalera handiarekin eta armarridun bigarren etxea; eta azkenik Gaztelu, dorre-jauregi izandako atalari baserria itsatzirik.

Aspaldiko bidea (Bergararik Bizkaiarakoa) erreka albotik zihoan, erreka eskumako aldetik behin Lamiategiko zubia pasatu ondoren. Tarteka aurki ditzakegu gaur egun ere baserrietara joateko zubiak, erreka bestaldera pasatzekoak (Lamiategikoa, Bitzibarkoa, Askasibar bolukoa, Loidi bolukoa, Loidi Etxebarrikoa,...), denak harlanduz eginda eta gaurko beharretara egokituak azken urteotan.

Gaur egun desa-


gertuta dagoen Mosolotegi baserrikoa zela diote Bergarako jaiei hasiera emateko Udaletxera jeisten den Bitorianatxo, bere garaian, mende honen hasieran edo, famosia izandakoa Bergara aldean eta zurruta ere gustokoa ei zuen emakumea.

Beste leku aipagarri bat Osiña da. Angiozar erreka duen ur jauzi bakarra eta putzu sakon baten (osiñean) bukatzen dena. Garai baten baiñu leku ederra izan zena gaur egun eskonbrerapean dago, tunelaren aho parean.

Baiñu leku honen ordez Lamiategikoa dago eraikia orain. Garai baten laminak urrezko orraziekin bere ile luzeak etengabe orrazten egoten ziren zubiaren ingurua gaztetxoan igerileku eta elkar-gune izaten da udara partean.

### San Kristobal Ermita

Aspaldiko eliza dugu hau. Bere fundazioa ertarokoa izan bazen ere badirudi XVI menea baino lehenxeko zeharo eraberritu zela. 9,3 x 5,7 metro neurtzen du luze zabalera eta ekialderantz dago orientatua. Arkitektura gotikoaren ezaugarriak ditu, oso nabar-



**San Kristobal eliza eta bere errekatxoaren alboko etxeak.**

men duen ate ojibalean. Hegoaldeko horman (aspaldiko kaltzadara begira) bi saetera haundi ditu eta beste bat ekialdekoan. Koruari eusten dion habea alboetako hormetan dago sartuta eta dituen zapatak arrakelez eta diamante puntadun adornuez daude adornatuta.

Erretaula nagusia San Kristobalen irudi barrokoa aurkitzen da. Alboetako aldareetan Ama Birjina bana: eskumaldekokoan XV. mendeko Andra Maria, Jesus haurrak txori bat eskuetan daramala (ukitu gotiko nabarmenak ditu irudiak), eta ezker aldeko irudia, aldiz, errenazimendu garaikoa da.

Elizatxo honen berezitasun adierazgarrietariko bat oraindik aldare osoa estaliz duen kainoi galgadun "guardapolvoa". Kalaorrako obispoaren aginduz bere agindupean zegoen elizbarrutian eraiki ziren XVI eta XVII. mendeetan, "Zurezko Elizak" dei-

turiko arte bitxia ezarriz. Bere helburua aldarearen ingurua txukun mantentzea da, teilatutik sar daitezken zikinkeriak ebiltzeko.

Eliza haundiagoe-tan, Angiozarko San Migel parrokiaren esate baterako, aldarea ez ezik nabe osoa dago estalita material berdina erabiliz, egurra, itxuraz harrizkoa dirudien arren.

San Kristobalko estalki hau 1575ean egin zen teilatuekin batera, behar zen materiala Bergararako Udalak dohan eman zuen.

Poleen bidez Aldare erdira zintzilik zegoen garai baten olio-zoko lanparako olioarekin azaleko gaixotasunak osatzen ziren. Hori lortuz gero osatu zenak arbola bat sartu beharra zeukan eliza kanpoan. Gaur egun kotxeak eta gidariak bedeinkatzen dira San Kristobal egunean.



**Lamiategiko zubia: Garai bateko bidaiarien pasabide eta lamiñen bainulekua.**



Laster ailegauko gara hogeita hamabostera. Egixa esan desiatzen nago horretara heltzeko. Orain be ez gara gaizki bizi; baiña, egixa esan, hogeita hamabostekin hobeto bizitzeko asmua dakagu. Batzuk berrogeikin be gustora dare, eta egon badare berrogeita hamar edo gehixau bete eta gustora darenak. A ze erremediox askotan!

Ba, bai, ia lortzen dan 35 orduko astia. Frantzian parlamentuak erabakitta 2000. urtian jarriko ei da martxan 35 orduko lan astia; Italian, barriz, 2001. urtian jartzeko asmua dake zenbait arlotan; Portugalen be antzerako-parezido. Europako Parlamentuak, —oso boto gutxiattik izan ba da be—, ez dau onartu Europa osuan indarrian jartzia. Ingalaterran gobernuak sindikatuei ta patronalei laga dotze gura dabena egitten, ta gaur egunian biharginen %60xak edo egitten ei dittu astian 35 ordu.

# Treintaisinko

Alde batetik, sindikatuak eta gobernu batzuk horrek neurrixon alde, langabeziari aurre egiñ guran. Bestetik, patronalak ta patronalan aldeko gobernuak oiñguai eutsi ta eutsi; ta gaiñera, esaten dabe horrekin neurrixokin lanpostuak sortu barik galdu egiñgo dirala. Azken batian, problemia ez da hainbeste biharra banatzia, dirua banatzia baiño. Biharra banatzeko danok

prest,

jendiak bihar gutxiau egiñtia, hori baiño inportantiaua da danok biharra eukitzia, eta horretarako dagona banatu bihar da, ta lana banatzeko bi bide dare: ordu estrak ez egiñtia, ta ordu gutxiau egiñtia. Gauzak gaizki zoiazenian (rekonbersiñuak etab.) esaten zozkuen horrek danok biharrezkuak zirala gerora lana ta aberastasuna sortzeko. Allegau ei da irabazixen sasoia, batzuek behintzat (banku, boltsa, enpresak...), eta betiko

moduan bihargiña gero eta bihar-baldintza txarraue-



dirua banatzeko be bai... baiña iñona. Oiñdiokan bihar asko egiñ bihar bihar gutxiau egitteko. Hemen eusko LAB-ELArekin emoten dau indarra badagola, baiña ikusi egiñ bihar.

Ordu gutxiaukin ez da eskatzen bakarrik

tan dago: ordu gehixau sartzen, gaziak diru sari txikixekin ta denbora gutxirako hartzen....

Biharran gainean

gauza asko esan izan da: ona dala (hala izan bazan ugazaba eta aberatsek ez zozkuen guri emongo), jaungoikoan zigorra dala ez dakit zein arbolatik sagar bat lapurtu zotzela-ko (sagar bateatxik horrela jarri bazan, segi-segi zuek elizara hurrengo zigorra jaso arte), etab. Derrigorreko biharra ez da iñun gogoko izaten; baiña gustoko tokixan aldapaik ez, ta bakoitza gogoko biharrian gustora diharduala.

Derrigorrezko biharra gutxittu ezker, norberan gustokua egitteko, edo ezer ez egitteko, denbora gehixau izango dogu. Hogeita hamabostekin denboria beste modu baten antolatze-ko aukeria izango da: oingo moduan jarraitu astian bost egun lan egiñten, baiña egunian ordu gutxiago egiñda; edo bestela, astian lau egun egiñ ta hiru jai hartu.

Sikera, behin 35era heldu ezker, horri eustia lortuko bagiñu!

Enrike Gorrotxategi

**Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.**



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

**KONTXI ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009



## Zazpi edo zortzi bat kinta batera

**K**onturatuko zarien moduan, hau erretratuau saso baten fraillien eskolia izan zan edifizio aurrian etarata dago, 1934. urtian gutxi gora-behera. Oñ dala 64 urte inguru etaratako erretratua da aurrian dakazuena. Elgetar batek baiño gehixauk bialdu dosku erretratua eta derrigor etara biharrekua dala pentsau jaku.

Bertan ageri dan batek esan dozkunez, berak hau erretratuau etara zanian hamaika bat urte eukazen. Berak esandakuagaittik erretratuko mutikuak ez ei dira kinta batekuak. Zazpi edo zortzi bat kinta inguru egongo dira. Danak hiru kursotan banatuta euazela be badakigu.

Besteik barik, hemen dakazue bertakuen izenak ezkerretik eskumara ta goitik behera:

**Julian Ormaetxea, Txomin Retolatza, Pedro Arrazola, Eugenio Olabarria, Iñaxio Gallastegi, Alejandro Telleria, Felipe Elkorro, Migel Arantzabal, Antonio Elkorro, Jose Elejalde, Antonio Iturrigaztelu, Victor Olabarria, Fakundo Sarasketa, Blas Arrazola eta Peli Arantzeta.**

**Ignacio Askasibar, Pedro Juan Gallastegi, Julian Markiegi, Juan Irazabal, Luis Egizabal, Felix Kortabarria, Lorenzo Ugalde, Patxi Ugarte, Jose Luis Fernandez, Maximo Arantzeta, Vitorio Arantzeta, Jesus Lizundia, Jose Mendikute, eta Angel Gorosabel.**

**Tomas Gorosabel, Genaro Azkarraga, Ignacio Arizmendiarieta, Juan Gallastegi, Eugenio Gorosabel Angel Elkorro, Simon Ibaibarriaga, Alfonso Arantzeta, Angel Markiegi, Vicete Askasibar, Victor Olabarria, Santiago Elortza, Eugenio Arana eta Modesto Basauri.**

**Jose Mari Elkorro, Iñaki Lazkano, Jesus Gallastegi, Alfonso Lizundia, Pedro Gorosabel, Jaime Jimenez, Txomin Garai, Paulo Arizmendiarieta, Fernando Urizar, Lazaro Egizabal, Jose Untzetabarretnetxea, Luzio Garai, Sabino Gallastegi eta Basilio Arantzeta.**

**Jose Luis Atxa, Juan Arrazola, Esteban Gallastegi, Txomin Agirre, Zipriano Askasibar Patxi Irazabal eta Victor Garai.**

# Hemen gara!

Todo terreno CRV



HONDA

Prelude



ACCORD



CIVIC 3 ate



CIVIC 5 ate

**MENDIOLA**

Araba etorbidea, z/g. ARRASATE  
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 771625  
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 797564



HONDA

HERRI 98  
URRATS

ELTZEGORRA JOZI!

Senperen maiatzaren 10ean